



KORTAZAR URIARTE, Jon (zuz.)
Egungo euskal antzerkiaren historia
 (Euskal Literatura saila bilduma, 11)

Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko
 Argitalpen Zerbitzua, 2012
 240 or. ; 21,5 cm.
 ISBN: 978-84-9860-665-2

Egungo euskal antzerkiaren historia (2012): oasiak eta ispiilatzeak

Sarri baino sarriagotan entzun (eta irakurri) izan dugu euskal literaturaren txikitasunaz. Eta esan gabe doa, generoen artean, lirika baina, batez ere, narratibarekiko atzerapenez jakitun, gehienbat dramatikoak duela basamortuaren itxura. Eskertzekoa da, oso tarteka bada ere, gure euskal literaturaren “paisaiagintza” txiki horretan, lehortearen erdian, halako inguruabarreko oasiak topo egitea.

Liburuaren edukia mugatze aldera, irakurleari ohartarazi behar zaio zer (eta zer ez) aurkituko duen ale irakurteraz honetan; Jon Kortazarren gidaritzapean, euskal literatura sailako 11.a eta bildumako 6.a dena. Nabarmena da, bene-benetan, euskal literatura dramatikoaren historia besterik ez dela. Alegia, literatur kritika zientifikoa egiteko saioa. Ez da haur-antzerkiaren aipamenik egiten (gaur-gaurkoz programazioaren % 80 inguru osatzen duena, txotxongiloak barne), ezta ere Erdi Arotik datozkigun Zuberoako pastoralena (harrigarria badi-rudi ere, 4.000 ikusliar biltzera iristen dena urteroko estreinaldi udatiarretan, maiz euskaldunak eta *etsaiak*) kontrakar manikeoan jarriz oholtza gainean, ongia eta gaizkiaren arteko lehia klasikoan), edota (mugez jositako) gure geografia txikian zehar talde amateur sakabanutuen eginahal eskergaitzak, teatro labur (eta ez motz)aren mundua, ekimen herrikoi ugariak (sarritan gertakari historiko eta efemerideei lotuak), zein Brechten moldeko ekarpen iraultzaile antzekoak (Antzerkiola Imaginarioa, esate baterako, 2005ean Donostian saritutako *Yuri Sam* antropologikoarekin).

Karlos del Olmok geurean hain beharrezko zaigun sarrera teoriko luze bat egiten digu, Galiziako –antzerki politikarik gabeko beste *“herrialde fosildu bat”*– eta Kataluniako nahiz beste erkidegoetako ikerlanek ekarritako haize nabarmenen eraginpean. Kontzeptu interesgarri bat baino gehiago darabil orriotan eta, besteak beste, didaskaliak. Hitz grekoaren bi zentzuen norabide kronologikoan, gainera: hasierakoan, idazleek antzezleei emandako oharrak zirenak (elkarlanerako deian) eta, gerora, jaialdien nolabaiteko katalogoa (hau ere, auzolanean burutzen ari dena: euskal antzerkiaren diagnostiko-inbentarioa). Eginkizun duguna gure herrian, bata zein bestea, gure antzerkiaren historia eta kanona bezalaxe. Orobat interesgarria, bukaera aldera, argitaraturiko lanen zerrenda xehea eta, halaber, estatu mailan ospatzen diren Max sariarekin suertaturiko balorazio modukoa, 2001-2011 tartean. Itxura guztien arabera, sarietarako izendapena eta argitaratua izatearena bat datoz gehienetan. Hortaz, noizko geure sari propioak?

Ondoren, Iñaki Aldekoak dihardu: Bizkaiko nazionalistekin hasi (gogora dezagun 1895ean bezain gertu-urruti, Sabino Arana euskal antzerki nazionalaren premiaz ohartu zela), Arestirengandik pasa 1960. urteetako hamarkada *“esplosiboan”*, eta 1974ean (azterketa lan honen denbora-mugaren atarietan) Bernardo Atxagaren NHI (*Nazionala, Herritarra, Iraultzailea*) aldarrikapen *“biribil-puntual”*eraino; denak izan dira kontziente antzerkiaren indarrak herriaren modernizatze, boterea eta mendekotasunaren arteko lehia etengabearen.

Nolanahi ere, liburuaren mamia nekez “oholtzaratzen” diren hamabost testu sariturren banakako azterketa bildua dugu; egileak, lanak, urteak eta kritikariak aipatzearren:

- Lurdes Iriondoren *Buruntza azpian* (1979) – Xabier Etxaniz
- Luis Haranburu Altunaren *Gernika* (1977) – Paulo Kortazar
- Daniel Landarten *Nola jin, hala joan...* (1985) – Jose Manuel Lopez Gaseni
- Xabier Mendiguren Elizegiren *Publikoari gorroto* (1987) – Fco. Javier Rojo Cobos
- Juanjo Olasagarreren *Hegazti errariak* (1996) – Alvaro Rabelli
- Antton Lukuren *Tu quoque fili* (1996) – Iratxe Retolaza
- Javier Cilleroren *Uztailaren laua, Renon* (1999) – Jon Kortazar
- Pantzo Hirigaraireren *Lamindegiko lamiak* (2000) – Alvaro Rabelli
- Karlos del Olmoren *Aldi joana, Joana* (2001) – Iñaki Aldekoa
- Enkarni Genuaren *Ostiralero afaria* (2001) – Paulo Kortazar
- Ixiar Rozasen *Gau bakar bat* (2004) – Iratxe Martin
- Alaitz Olaizolaren *Joanes (itxaropenaren semea)* (2007) – Fco. Javier Rojo Cobos
- Patxi Zubizarretaren *Ohe deseginak* (2008) – Xabier Etxaniz
- Aizpea Goenagaren *Arrainontzia* (2009) – Jon Kortazar
- Mattin Irigoienek *Jendeen jende* (2010) – Jose Manuel Lopez Gaseni

Buruz arituz ere, girgilerietatik at, horietatik lauzpabost besterik ez izan ditugu ikus-entzungai bazterrotan, irakurketa dramatizatuaren formula merkeagoari esker eta, horietako gehienak, errealismo ibsendarrean kokaturik.

Euskal Autonomia Erkidegoa abiatu zenetik eta ia-ia gaurdainoko ibilbidea: 1977-2010 epeaz ari gara, belaunaldi oso eta luze batez beraz. Esanguratsua da aukeratutako hamabost lanetatik (arrazoiak aipatzeke geratzen direlarik: zergatik horiek eta ez beste batzuk? Agian denborazko ildoak sortutako arazoez gain –lan gutxi aztertzeo aukera eta aldi luzea–, geografiari eta generoari lotutako oreka ezinezko baten bila jardun beharra egileekin) lau Ipar Euskal Herriko idazle eta dramaturgoen eskuetatik datozkigula. Proporzio handia, noski, eta beharbada gogoeta berezia mereziko lukeena orriotan, hango bizi(raun)tasunak hemengoaren eskasiarekin alderatzeko asmoz. Euri gutxiko lurretan eremua zabaldu beharra dagoelako, baita teorizazio mailan ere, euskarazko antzerki propioaren nondik norakoak finkatze aldera.

Antton Lukuren saiakera kritiko eta saritua dugu kasurako, *Euskal kultura?* (2009), kultur kolonizazioaz eta klonazioaz ari zaiguna, sistema handiagoak krisian dauden honetan. Zenbat eta zenbat kanpoko lan arrakastatsu euskaratu eta taularatuak ikusi ditugu hegoaldean inongo arrastorik utzi gabe? Hobeak al dira mugaz haragoko lan komertzialen itzulpenak gure lelokeriak baino? Euskal antzerkiaren beste paradoxetako bat dugu gehienbat antzeztan diren komediak (bertako nahiz kanpoko) gero paperean ez argitaratzea.

Beste horrenbeste esan dezakegu jorratu diren gaien eta formen sailkapen batek zenbat lagunduko liokeen irakurleari hobeto ulertzen euskal antzerkiaren (ustezko) bilakaera. Ustezko diot, hil berri dugun Lasagabasterrek berak ere “*genero ez eraberrituzat*” jotzen baitu eskuartearen dugun hau. Eta ez du ematen, kasu honetan behintzat, literatur kritika boterearen txotxongilo zenik. Muturrekoak dira *Egungo euskal antzerkiaren historia* honetan aztertzen diren lan asko: elkarrizketa hutsetik ekintza hutsera (garaiko politika barne), eta bitartean *dena* (umorea, historia, arbasoak, ondorengoak, diaspora...). Baina *dena* haizeak eramandako hondar legez, duna bihurtzeraino.

Basamortuko arrosak, lore bainoago, sedimentuzko harriak dira (igeltsua, ura eta harearen nahasketatik sortuak). Eta gure palmondoen itzalpeko barretzetxoan halako asko dugu. Harribitxi idatzi ezezagunak (testuak falta dituztela gure talde amateurrek?), urtean bizpahiruko kopurutan argitaratuak, gutxitan (inoiz ez esateagatik) itzuliak (zein hizkuntzetara?), noizbait irakurketa dramatizaturen baten euskarri (ekoizpen gastuak saiheste aldera nagusiki); baina euskarazko literatura dramatikoak, behinenez, ez antzeztearen drama eta absurdoa bizi ditu aldi berean (“*Gura-dot*”en esperoan al gaude?). Egia da antzerkia, ezer izatekotan, talde laneko kontua dela eta, izaera kolektibo horretan, dibortzio gehiegi dagoela testugile bakarti

eta taldekako antzerkigileen artean (agian Ipar Euskal Herriko salbuespen inprobisatu eta ulergarriekin; zein bere aldetik ibiltzeak, aldez edo moldez, indarrak sakabanatzen baitu). Horren lekuko izan ditugu EHAZEK (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak) azken urteotan buruturiko hainbat mahai-inguru: *for page or stage?*. *Egungo euskal antzerkiaren historia* honen sarreran bertan ere, ausiabar horren aipamen shakespeareazalea datorkigu: agertokirako izan ala ez izan. Seneka zaharrak irakurtzeko idazten omen zuen antzerkia...

Hala ere, garaiko argi-ilunak politika baten faltan daude (Makiavelok berak ere bazezkieen politika, ezer izatekotan, antzeztua zela, gobernatzeko artea arte dramatiko da. Eta ez bide dirudi, *“teatrokrazia”* garai hauetan –Bilboko *Eszenika* lekuko–, gauzak gehiegi aldatu direnik). Erakundetu beharrean ardaizten da *dena* hori: zer gertatu zen 80ko hamarkada hasieran, Kataluniako ereduari jarraituz, Antzerki eskolaren porrotarekin? Hor bai dela ikerketa gai interesgarria, iradokorra, sustrai sakoneko zuhaitza adar luzeak ateratzeko, oraindik ere antzerki eta antzoki nazionalik gabe bizi den herri honetan. Bide batez esanda, idazle dramatikozen lepo bete diren euskal zinemagintza eta telebista askoz ere arrakastatsua izan ala dira? Lorcak, arrazoi faltarik gabe, halaxe zioen:

“el teatro es uno de los más expresivos y útiles instrumentos para la edificación de un país, y el barómetro que marca su grandeza o su descenso”

Nolako jendarte, halako antzerkia; eta alderantziz. Herri izateko, antzerkia behar bezar. Antzerki nazional eta politikoa eraikuntzaren adibideak Irlandan (Yeats, O’Casey, Abbey Theatre) edota Alemanian ditugu (Piscator, Brecht), hurrenez hurren. Klasiko propio sortu (edo inposatu?) ez duen partitura zaharreko tradizio ugaria bezain antzua gurea (ezagutzen al ditugu Soroa edota Altzagaren testuak?). M. Jose Olaziregik ematen digu datua: 2000. urtean argitaraturiko liburuetatik % 6,3 antzerkia ziren, 1876-1935 urte bitartean berriz % 48,3. Aztertzen den garaiko urrezko urtea 1985a izan zen 23 lanekin (zein da atalasea?).


Garai batean antzerkiak, gatazka elkarrizketatuak, zirrara-transmitzaile horrek, malako isurazki edo barrez leherrarazteko ahalmena duen arteak, zentraltasuna zuen gizartearen, energia eta pentsamendu kritikoa, onartezinaren aurkako mezua, boterearen satira eta erreallitatearen ispilu deformatu gisa. Baina baita egun ere, *“ikuskizunaren gizarte”* izendatu den honetan, Kataluniako (edo Eskoziako) bizitasuna dugu horren lekuko. Euskal Herrian, inolako idazketa eskola eta bekarik gabe, ustezko trantsizioko *“ilusioak”* euskaraz antzeztuak ikusi ditugu berriki Donostian, bi elkarlan saritu (eta Artez Blain argitaratu) hauetan: *Errautsak (2010)* eta *Gure bide galduak (2011)*.

Nolanahi ere, basamortuan, beroaren ondorioz, ispiatzearen fenomeno gertatzen ei da. Horietakoa bat dugu liburuan aztergai denetakoa bat: *Publikoari gorroto (1987)*. Artauden ankerkeria sadiakoan oinarritutako antzerkiaren inguruko hausnarketa, metateatro probokatzaila burgesia pasiboarentzat, barrunbeak ikusiz, bortizkeriak panpinatuz kabaretean... Hala-beharrez, iruzkin honen liburua argitaratu zen urte berean, Euskal Herri osoan zehar –egokituriko bertsioan, jakina– antzeztua izateaz gain, Donostia Saria 2012 eskuratu zuen. Euskalkien ohiko aitzakietan bainoago, bi estatuko erreferente kulturaletan zaildutako iparhegoaldeko nomadismoa, behar-beharrezkoa soilik garraiatzen dakiena, bere fruituak ematen hasia da... eta datilik oso energetikoak ditugu basamortuan. Inoizko eskaintzarik opa-roena helduentzako (13 antzezlan –Kataluniako Antzerki Nazionalaren parean– eta 41 emanaldi, guztira 6.543 ikusle). Dagoentzako, euskal antzerkiaren hiriburu (ekonomikoki “auzo-merkatu” baino ez dena) datekeenean.

Krisi ekonomikoan murgilduta gabilza, baina antzerkia omen da arte bakarra bitzta aseguratua duena, beti krisian baitago (eta zeresanik ez, euskalduna). Gure basamortuko zeharkaldi kritikoa honetan, ezagutzen genituen sariak (arestian aipatu bezala, liburuaren iturri nagusi direnak) desagertze bidean omen dira, finantza-erakunde ezagunei loturikoak, behinik behin. Poetek, behintzat elkarrenak irakurtzen omen dituzte, eleberririk ezagunak egokitu eta antzeztuak ere izan dira (Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* –Patxo Telleriaren eskutik– kasu); baina gure dramaturgoak triste eta bazter daude, ispiatze baino oasiak behar

dituen basamortu honetan. Hala ere, ikerketa lan aitzindaria den ur-putzu honek, idazlan diren aldetiko literatur balio eta akatsak ere aztertzen duena, eta ez, bakarrik, antzezgarri izatea ala ez izatea, jarraipena izango ahal du (ebaporatu baino lehen, lausotik ikusezinerako bidean) euri poxi batekin... ikusliar aktiboak (betiere elkarlanerako prest) *haima* goxoan harrapa gaitzala, arrakastak arrastakaren arriskua dakarrelako!

Oskar Arantzabal Iraeta



PABLO, Santiago de; GRANJA, José L. de la; MEES, Ludger; CASQUETE, Jesús (coord.)

Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco

Madrid: Tecnos, 2012

899 p. : il. ; 24 cm.

ISBN: 978-84-309-5486-5

Si algún día se escribiera un tratado sobre los diccionarios que abordan cuestiones nacionales, este *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* ocuparía en él un lugar privilegiado. Sin la menor intención (ni, obviamente, la capacidad) de agotar la lista, mencionaré otros hitos bibliográficos que tal vez podrían justificar la constitución de tal nueva ciencia lexicológica. Por ejemplo, en francés, *Les lieux de mémoire*, dirigido por Pierre Nora (París: Gallimard, 1984-1992, tres tomos), en alemán, *Deutsche Erinnerungsorte*, dirigido por Étienne François y Hagen Schulze (Múnich: C.H. Beck, 2001, tres tomos), y *Vokabular des Nationalsozialismus*, de Cornelia Schmitz-Berning (Berlín-Nueva York: De Gruyter, 1997), y, en castellano, dos obras memorables, *Diccionario cultural e histórico de Irlanda*, de Jacqueline Anne Hurlley et alii (Barcelona: Ariel, 1996), y *Diccionario crítico de los mitos y símbolos del nazismo*, de Rosa Sala Rose (Barcelona: Acontilado, 2003). Según comenta uno de los coordinadores de la obra que reseño, Jesús Casquete, fue precisamente la lectura de este último libro la que le inspiró la feliz idea de escribir algo semejante sobre el abertzalismo.

Este *Diccionario* es una obra colectiva en la que han participado doce especialistas, la mayoría de ellos vinculados a la Universidad del País Vasco (Coro Rubio, Iñaki Iriarte y Virginia López de Maturana, además de los cuatro coordinadores), pero también a la de Navarra (Álvaro Baráibar), la de Deusto (Leyre Arrieta), la de Santiago de Compostela (Xosé Manoel Núñez Seixas, hoy en la Ludwig-Maximilians Universität de Múnich) y la de París IV (Maitane Ostolaza), así como un investigador independiente (José María Tápez). El equipo directivo ha realizado una magnífica labor de supervisión para evitar repeticiones y contradicciones. El volumen está lujosamente editado y muy bien escrito, lo que es de agradecer en una época en la que erudición y estética a menudo se plantean como conceptos contrapuestos.

En total se han recopilado 53 voces, cada una de ellas con su correspondiente bibliografía (en esta reseña las entradas citadas aparecen en negrita). Estos símbolos están